

## Ahozko literaturaren paradoxak

Joseba OTONDO BIKONDOA

**A**uza, han bada gauza baina inork ez du hartzen ahal. Berriki *La Vuelta de Sugaar* liburuan irakurri dudan erranairua da hori. Lehenago ere, bertze nonbait, irakurria nuen. Erranairua bakarrik ez, horren giblean kontakizun zahar bat dago eta hori ere, han hemen irakurrita ikasi ahal izan dut.

Auza mendiaren altzoan bizi garenendako, mendi ikusgarria da; eta edozein tokitatik begiztatzten ahal da. Hortaz, ez da harritzekoa mendi hau gogoan hartzen duten hainbertze erranairu izatea. Horietako batek *“Auzako mendien lano, berotzeko denbora bano”* erraten du. Hori bezala, aroari buruz mintzatzten direnak, badira bertze bizpahiru. Alta oraingoan ere, guzti horren berri han hemen irakurrita eduki dut, kasu honetan Mariano Izetaren *Baztango Hiztegia*.

Hor barna irakurritako pasarte horiek, adineko jendeekin kontrastatzeko aukera eduki dut eta hara! Beren ahotatik, arrotzak zitzaizkidan kontakizun eta pasarte horiek aditu ahal izan ditut. Afera da, beraien eta nire artean, belausaldi bateko tarte bertzetik ez dagoela. Halakorik, nola?

Bizimodua aunitz aldatu da eta transmisio bideak ere, arrontean aldatu dira. Eta horrek, ahozkoasunean oinarritutako literatura transmititzeko moduetan, haustura eta zatiketa eragin du. Doike, honekin ez gara ja berririk erraten ari.

# 183

Alta, gaurko egunean, aroaren berri jakiteko, inork ez du Auza tontorrera begiratzen. Eguraldiari buruz zerbait jakin nahi izanez gero, telebistako iragarpena ikus-entzutea aski dugu. Hau da, mundu erreferentziala aldatu da. Eta horrek denbora batean erabilgarriak eta beharrezkoak ziren ezagutza tresnak desagertzea ekarri du.

Aldiberean, ezagutza horren jakitun direnak, gizartetik nolabait baztertuta ageri zaizkigu. Denbora batean, berriki artio bederen, ezagutzak esperientziarekin zuen zer ikusia. Eta hori bizitza oso baten ordaina izaten zen. Kontua da gehientsuenak alfabetatu gabeak izaterakoan, jakintza guztia ahoz aho transmititzen zela. Modu horretan zaharren erranak eta irakaspenak aski gogoan izaten ziren, eta ondorioz, adineko jendeek gizartean egiteko garrantzitsua zuten. Orain berriz, baztertuta dagoen gizarteko sektorea da eta aunitzetan, solastatzeko ere, baime-na eskatu beharra dutela iduri du. Gizarteak bertze egitura bat hartu du, eta horrek nahitaez, jerarkia eta balore berriak ekarri ditu, gaztetasuna eta abiadura erran modu batez.

Ahozko literaturak, balio historikoa du, antropologikoa, literarioa, lexikografikoa... ikerketarako iturri agortezina da. Zorionez, ezagutza guzti hori biltzeko eginahal azkarra egin da, eta pasarte, kondaira, erranairu, kantu... aunitz liburuetan eta bildumetan aurkitzen ahal ditugu. Baino, oraino ere lan handia dago egiteko eta guzti hori bildu nahi bada, orain da momentua; bertzez naz adineko jende horiekin galduko baita mundu horri buruzko berri zuzena. Eginahal horre-

tan, bai Bortzirietan, bai Malerrekan, bai Baztanen ere, ahozko tradizioa biltzeko beka deialdiak egin dituzte. Horretarako, administrazio desberdinen borondatea behar-beharrezkoa da.

Gauzak horrela, nahitaezkoa da euskarak urteetan jasan duen zanpaketari buruz gogoeta egitea. Dudarik ez da bizimodua aldatu dela, arrontean gainera, eta horrek hameka gisatako ondorioak ekarri dituela alde guztietara. Baina kontutan hartu behar da egiturazko aldaketa horietaz gain, euskarak jasan duen debekua transmisio haustura hau ulertzeko elementu sahiestezina dela. Gainera, oraino akitu ez den galera prozesua indartzeko elementu garrantzitsua izan da.

Ahozko literaturari buruz solastatzerakoan ez gara ahozko tradizioara mugatzen ahal, nahiz eta hau, bere horretan ere, aski garrantzitsua izan. Ahozko literatura aldiero sortzen eta berasmatzen, gaurkotzen den komunikazio eremua da. Modu horretan euskararena paradoxikoa da, zeren batetik ahozko tradizio aski aberatsa du baina bertzetik, jasaten duen egoera diglosikoa dela-eta, aski zaila da eguneroko sentipen, emozio eta pentsamenduak nahi den moduan agertzea; hori dela eta, maiz aski, gehiegitan akaso, erderetara jotzen dugu. Eta hau, ez da hirietan bakarrik gertatzen, inguru euskaldunetan ere aski arrunta da.

Ikusi ahal izan dugun bezala, ahozko literaturari buruz mintzatzerakoan, aunitzetan ahozko tradizioa nabarmentzen eta lehenesten dugu. Alta, badira denboran gureganaino iritsi diren generoak eta iduriz, aski sasoiko daudenak, bertsolaritza erran modu batez. Horrek ere ondorio makur batera eramaten ahal gaitu. Bertsolaritza osasuntsu (?) dabilenez, halaberean dabilta gainerako generoak. Baina gurasoak seaska-kantuetan eta haur jostetetan trebatzeko egiten ari diren ikastaroak ikustea bertzerik ez dago. Elizondon berriki, modu horretako ikastaro bat hasi dute, eta Doneztebe eta Beran ere, iduriko ikastaroak egitekotan dira. Pentsa instant batez: inguru euskaldunetako gurasoek, ez dute haurren seaska-kantak e.a. berenganatzeko modurik izan!

184

Ikastaro hauek, guraso elkarteen kezka ondoriotz sortu dira. Baina kontutan hartu irakasleak ez direla aitatxi-amatxi zaharrak, jende gazteak baizik. Hortaz, ikastaroak prestatzeko, egile desberdinen bildumak e.a. erabili behar izan dituzte. Eta puntu honetara iritsita, aldiberean, bildu beharraz eta gizarteratu beharraz solastatzen ari gara. Ez baita biltzearekin aski, gero, gizarteratzeko plangintzak egitea beharrezkoa. Modu horretan, nahi moduan berasmatu, jostatatu, bihurritu, edo nahi dugun forma emateko lehengaia eskuratuko dugu.

Baina ez dugu atzentzen ahal, jendeen arteko harremanak, gero eta modu ageriagokoan bitartekotuak edo mediatizatuak daudela. Komunikazioan eta aitzinapen zientifiko-teknologikoan oinarritutako ekonomia eta gizarte harreman berriek, kultur paradigma berriak sortzen ari dira eta egoera honek, ahozko tradizioa eta ahozko literatura aztertzeko elementu berriak proposatzen dizkigu. Baina hori horrela gertatzen den modu berean, *“Auza han bada gauza, baina inork ez du hartzen ahal”* erranairu enigmatiko hori burura heldu zait. Eta iduriz, Auza hegaleko leze batean, sugetzar batek eta aker beltz batek zaindutako urrezko zagi bat zegoen... Bai, neolitikorako gonbidapena den bidaia.